

NAFARROAKO D HIZKUNTZA EREDUKO BATXILERGOKO IKASLEEN AHOZKO HIZKUNTZA EUSKARAZ

Tesiaren egilea: Garbiñe Urreizti Lezertua

Unibertsitatea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)

Saila: Psikologia eta Pedagogia Saila

Tesi-zuzendaria: Pablo Sotés Ruiz

Tesiaren laburpena:

Ikerlan honen helburua Batxilergoko lehenengo mailako ikasketak bukatuta-koan, D eredu ikasle ahozko ekoizpenak duen hizkuntza-kalitatea ezagutzeko da, ikasle horiek, ahozko azalpena aurrera eramateko orduan, hizkuntzaren alderdi formalarekin dituzten arazoetan zehaztua.

Irakaskuntza elebiduna Nafarroan hiru hizkuntza-eredutan gauzatzen da, 159/1988 Foru Dekretuak arauturik. Ikasleak, hizkuntza-zonakatzearen arabera, euskararen irakaskuntza edo euskaraz den irakaskuntza aukeratzeko posibilitatea du.

D hizkuntza-ereduko ikasleria bigarren hizkuntza ezezaguna izatetik abiatzen diren ikasleek eta ama-hizkuntza euskara izanik —zona euskalduneko ikasleak— ikasprozesu osoa euskaraz egiten dutenek osatzen dute.

Aurkeztu den ikerketa hau D eredu Batxilergoko 1. mailako 384 ikaslerekin egin da. Nafarroako hizkuntza-zona ezberdinetako Bigarren Hezkuntzako 10 ikastetxetako ikasleak dira. Ikasle horiek, beren Batxilergoko ikasketekin batera, Euskarako Gaitasun Agiria lortzeko Hizkuntza Eskolako ikasketak segitzea erabaki dute.

Ikerketako oinarria den corpusa ahozkoa da eta ikasleak Hizkuntza Eskolako ahozko azterketan bakarka egin duen azalpen formalean oinarritzen da. Proba honetako ahozko azalpenek ikasle bakoitzak egindako errorearen analisia egiteko balioko dute. Ikerketa honek ikasle horiek egiten dituzten erroreak sailkatu, deskribatu eta azaldu nahi ditu.

Bestetik, ikertu den populazioaren ahozko ekoizpena idatzizko ekoizpenarekin kontrastatu nahi izan da, hizkuntza-erroreak ahozko jardunean bakarrik agertzen diren ala idatzizko ekoizpenak ere hizkuntza-erroreak jasotzen dituen ezagutzeko.

Helburua arazoari buruzko erantzunak jasotzea izanik, ikaslearen hizkuntza-gaitasuna eta testuinguru familiarren ezaugarriak erlazionatu dira. Ikaslearen hizkuntza nagusia edo ohikoa eta ahozko jardunean egindako erroreak erlazionatu dira. Horrez gain, ikaslearen errorearen eta ikaslearen errorearen eta beren zuzenketaz duten pertzepzioaren interdependentzia aztertu da. Ikasleak Bigarren Hezkuntza utzi eta denboran euskarazko irakaskuntzatik urrutiratuta daudela, horien ahozko

jardunari buruzko informazioa ere jaso nahi izan da. Bestetik, dagokigun ikasle-riaren euskararekiko jarrera eta euskararen erabilera ere erlazionatu dira. Azkenik, ikasleen ahozko jardunaren ezaugarriak hobeto ezagutzeko, irakasleen iritziak ezagutzera eta gurasoen mintzamena aztertzeraz jo dugu.